

# Putzurako bidean

TXILLARDEGI



**EGUN** hauetako irainek, adiskidekeriek, kolpe dorpeek, jukutria ustekak eta saldukeriek, aztoratu bezala egun dituzte bazterrak. Somatu egien da nabarmenki 16 urte hauek aski izan direla «politika» deitzen duten joko okaztagarri hori muinetaraino kakazteko.

Gauza bat da segurua: *abstentzioa* gora joango da. Eta igoera horretan parte handia izango du *Euskal Herria zinez eraiki* nahi duten abertzaleen multzoak.

Baina egun hauetako azokakerien atzean dagoen fenomeno kezagarria ez errepartzeko arrisku handia dago. Hots, emaitzek argiro erakutsi dutenez, *sistema honek* putzura darama Euskal Herri Asktuaren *nazio-projektu osoa*. Lauzabost zifra bakarrik.

Partidu espainolistek gora egin dute: + % 7,47. Partidu autonomistek, berriz, behera: - % 14,60. Eta HBK ere behera: - % 22,17. Gora indartsu datorrena PP da: + % 13,46. *Guztiz* ahulduta datorrena EE da: - % 41,09; orpoz-orpo EA jarraitzen zaiolarik: - % 39,06. (PNV + EA) *multzoa* ere, kontuz, behera doa: - % 7,75.

Abstentzioa azkarki gora: + % 26,74 (1987z geroztik, beti). Gero eta jende gehiagok muzin egiten die hauteskondeei. Eta egun hauetan ikusi duguna ikusi ondoren, urrun geldituko da oraingo maila: % 39,41 abstentzioa.

*Abertzaleatasuna* doa behera, hitz batez. Gora, berriz, bi joerak: *espaniolismoa* eta «*pasos*» egitea. Europa osoan abertzaleatasunak gora doazen momentu on («*ona*», bai, naziotasunaren aldetik bederen) honetan, Euskal Herriaren politika zuzentzen duten politikari profesionalak, putzura daramate berria.

Bapo, mutirik!

# EL MUNDO

## «Kokainaren erregearen» errendapena

Azkenik, Kolonbiako Estatuak ezin izan du jasan kapoak eta hauen sikarioen kontrako gerran sortu galera ugariak pertsonen bizitzetan, eta onartu egin ditu errendapenerako baldintzak.

Bertako eta nazioarteko sektore politiko desberdinek leporatu diote Gaviriari «narkoei» gauza gehiegi eman izana. Baina bakea lortzea —Kolonbiako azken aldiko gobernuen asmo iraunkorra, zeinen bidez emari politikoak medio talde gerrilari garantzitsuak bizitza zibileraz bideratzea lortu zen— ezinezkoa zirudien, endemiko bihurtzeko arriskua zuen enfrontamenduari eutsiz gero.

EDITORIALA / 1991-VI-21

# DEIA

## Uztailaren 2an ikusiko dugu

HBko buruzagiek badakite, gainera, Euskadiko Ezkerrakoen gendik izango balitz, ez litzatekeela ne-

# HEMEROTEKA



RICARDO Y NACHO / EL MUNDO / 91-VI-21

goziaketarik eta ez ezer emango, eta badakite ere Garaikoetxeak ez duela iraintzat hartzen, Madrilako komentaria politiko inozu batzuk berari esandakoa, alegia, HB-ETA bezalako dela, baina metrailETA-rik gabe. Eta badakite, negoziaketa, gauzatzen bada, PSOErekin burutuko dela, eta hurrengoan ez dela inozokeria bera errepikatu, alegia, negoziazioa, dialogoa edo dena delakoa, bi aldeetara egingo, eta kortesiako hirugarren gonbidatu batzuekin, azken onespina emateko. Eta noski, ez dago ere argi ea Añamendikoez bere idazkari nagusiaren gomendioen aurka jokatu dezaketen, berak esan duenez EEK

ez bait dizkio inozu botoak HBri emango, bere idazkari nagusia izan ezik.

JOSE FELIX AZURMENDI / 1991-VI-21

# EL DIARIO VASCO

## Egingarria ez den paktua

Herri Batasuna Imanol Muruaren alde aterako dela dioten hipotesia benetan gertatzea ez da oso erraza, individualki gertagarria den arren. Baina horrez gain, bere eraginor-

tasun operatiboa hutsaren hurrengo da.

(...)  
Bigarren hipotesia da EAJK onartu egin beharko lukeela azken aukeratzat hirukoitza EA eta EE-rekin, Imanol Murua berriro izendatzen badute. Baina Gipuzkoako EEK, alderdi horretako Jon Larrinaga diputatu nagusiak hasi oposizioa pitzatu egin nahi du.

ALBERTO SURIO / 1991-VI-21

# SUD OUEST

## Inmigrazioa: hitz handiak

Frantsesak, inkesta guztiak horrela diote, kexu dira atzerritar jende ugari dagoelako eta gero eta sinestegitzaok direlako haien integrazioa aukerak, eta bereziki magrebier inmigratzaioarekiko arbuioa.

(...)  
Gure eginbeharra da integrazioa lortzea, baina kulturen arteko txokeek ez dituzte gauzak erraztuko. Beharrezkoa izango da identitate arazoak lasaitzea, suari olioia bota gabe, iraganean ez bezala. Beraz, arrazoi handiagoa dute politikoez erabaki nagusia gauzatzeko emigrazioa, elkarren artean gaitz guztiak leporatzen ibiltzea baino.

JOEL AUBERT / 1991-VI-21

# Ikusiak

PIARRES XARRITTON



«**IKUSIAK**», horrela eman zion izena, aspaldi lehen, Jean Saint-Pierre «Anxuberrok», berari 14-18ko gerlan gertatu gertakari ezinsinetsiak kondatzeko *Eskualduna* asterkarian hasi zuen artikulua sailari.

Guri ere horrelako zerbitz gogoratzen zaigu, azken egunetan, Donostia aldean, erabili diren politika jokoak aipatu nahi ditugularik. Hala dira ezinsinetsiak!

Bainan gure aitaso Martin zenak zioen bezala, bere zuhurtzia handiarekin, Gertatzen ez denik ez da! Aspaldiko historia!

Historia dela-ta, hain zuzen, tomas Morus-en «Utopia» latinetik euskarara itzultzen ari nintzela, irakurri nuen, Morus-en denboran, Ingalaterrako erregearen gortean, bazebilela berria, bai, zik eta Aragoiko erregea eta Frantziakoa, orduarte etsai zirenak, laster konpondu beharrak zirela; azken horrek utziko baitziren besteak, *bera ez zuen Nafarroako erreinua*. Solas horiek kurri omen ziren 1516an, Londres-en. Guk badakigu zer zen gertatu Iruñean, handik bost urte buruan, 1521ean, eta nola, azkenburuan, arrotz etsaien jukutriaz gainera, etorri zitzaion Nafarroari behingotz eta betikotz suntsitzerat, bere ume Agarramontes eta Biamontesen arteko zatiketa: Oroitzapen lazgarria guretzat!

Eta orain? Ikusiak ikusi, XVI. mende hasteko historia tristea, ez ote den, gure XIX. mende ondareko historiaren adierazgarri, ni beldur. Ez baitzuten orduan ere Herri hau salbatu, ez militarrek, ez teologoez, ez sorginek ez sainduek!

# ZUZENDARIARI

## Europaruntz?

Aurreko arratsaldean Gar-Goardia Civilaren kontrol batean egon nintzen. Eguraldi ederra, presarik ez, lasai lasai.

Lotsagarria!  
Ez zait beste berbarik etortzen burura benetan lotsagarria.

JOSE RAMON OREGI SORALUZE

## Ohartxo bat gure ondoko hizkuntza apal bati buruz

Hizkuntza ahulen arteko elkartasunari buruzko bi berriki bultzatu naute lerrook idazterea. Duela zenbait aste eta hil honen 16 igandean elebidun seinaleztapenaren alde euskaldunak eta biarnez-gaskoiek bildu ziren Ortesen eta Baionan —baita britaniarrak ere azken honetan—, batera elkar indartuz eta helburu berbera lortu nahian. Eta gaskoniera (biarnez bere bariante bat baino ez da) kontutan daukadalarik, gure Hiztegia, gehien ohi darabilguna, hartzen dut eta

gure lurralde historikoa aipatzen denean erdal itzulpena mintzaira askoz dakusat (georgieraz eta guzti), baina ez orain ukitzen ari naizenez, Atturri ibaiak erditik zeharkatzen duenaz. Neure buruari galdetzen diot zergatik ez den sartu agian euskal eraginik handiena izan duen erromantzea. Bere izenak eta gurearenak erdaraz esanik etimologia bera dute, biak «vascon» hitz zaharretik baitatoz. Gurean legez r-aurreko bokale protetikoa darabilte eta arrosa, arroda, arroca... esaten dute, geuk bezala. Eta gehiagorik. Bestalde, frantsesa inposatu baino lehen hartaz baliatzen ziren iparrarrak kanpotarrek harenanetan jartzeko, eta beraz idatzi zituzten beren foruak. Iparaldeko zenbait lekutan toponimia gaskoia eta topatzen da: Belloc (Beaulieu), Bonloc (Bonlieu)... Hiri batzutan elkarren ondoan bizi ziren gurea eta gaskoiera, elebitasuna sortuz: Baionan, Angelun... Eta, gehiegi ez lutzatzen, gure literaturaren zenbait testutan agertzen da Garona-Gabeen arteko mintzairaren hitz edo esakeraren bat.

Etxean daukat ia Paz benen erosi nuen Michel Grosclaudek egindako «Lo gas-

con lèu e plan» gramatika-irakurgai liburua ederra eta han gure Euskal Herriaz mintzo denean bi hitz darbiltza: «Pais Basco» eta «Bascoat», bata kultur mailakoa eta bestea herrikoa. Ez ote dute merzi hitzok gure Hiztegiok itzulpen oparo hartan agertzea? Ez ote da aipagarria auzoa dugun, baita ahaidetatz ere, gaztelania bezalatsu edo gehiago, jo dezakegun lengoia pirenaiak hau? Euskaltzainen batek irakurriko balu eta jaramon egingo balit, oso poztu egingo nitzateke.

L.A. ANTON GORBEA, J. DE AJURIA GUERRA BILBO

## Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauean. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. *Laburtu beharra* izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

# PERTSONAIA



## Jose Barrionuevo

Jose Amedoz hitzegin gabe ez da pasatzen egunik antzerkitxoak lasai aurrera jarraitzen baitu oraindik ez dut espero Barrionuevok hau argituko duenik horrela pentsatzen dut nik hor ez baitago gizonik (bis) inor ba ote GAlen atzean nor dagoen ez dakinik Barrionuevo ministro ohia zegoen lekuan egonik (bis).

ANTTON KAZABON

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRETA INAKI URUA

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Gerentea: INMA GOMILA

# Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90

## HELBIDEAK

**Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa:** Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
**Erredakzio eta Tailerra:** ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
**Araba:** San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
**Nafarroa:** Iratxe Monastegia, 45-13.eko. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77  
**Bizkaia:** Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
**Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa:** 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11